

Hies kasuak jaitsi egin dira Nafarroan

Herrialde azpigaratuetatik ekarritako gaitzen kopurua igo da

Erredakzioa/ Iruñea

Nafarroan hiesa, tifusa edo tuberkulosia bezalako ohiko gaixotasun infekziosoak jaitsi egin dira azken urteetan. Ostera, nabarmen igo dira beste herrialdeetatik, bereziki azpigaratuetatik, ekarritako gaixotasun berriak. Nafarroako Ospitaleak, esaterako, 33 paludismo kasu izan ditu azken urteetan.

EGUNOTAN Iruñean egiten ari diren Gaitz Infekziosoen Eguneratze Ikastaroko koordinatzailea den Julio Solak atzo eman zituen datuen arabera, Nafarroako Ospitaleko Gaitz Infekziosoen Zerbitzuak funtzionamenduan daramatzan 12 urteotan 16.600 gaixo eta 5.400 ospitaleratze izan ditu.

Ospitaleratze gehienak GIB (1.580 kasu), pneumonia (1.104) edo elikadurak eragindako toxikazio kasuak (581) izan ziren.

Ohiko gaixotasun infekziosoen kasuak jaitsi egin direla nabarmendu zuen Sola doktoreak. Eta horren adibide bezala, tuberkulosi kasuen jaitsiera azpimarratu zuen, azken hiru urteetan 14 kasu baino ez baitira izan.

Azken hamarkadako gaitz infekzioso garrantzitsuena hiesa izan da, eta hor ere kasuak nabarmen murriztu direla esan zuen. 1995. urtean gaixo hauek ospitaleratzeen % 65 ziren bitartean, aurtun % 31 baino ez dira izan; egun Ospitalean 525 hiesdun daude tratamenduan.

Gaitz infkezioso horien kasuak murriztuz badoaz ere, igo egin dira herrialde azpigaratuetatik inportatutakoak. Horrela, Nafarroako Ospitaleak 33 paludismo kasu izan ditu, erdiak azken bi urteetan.

Ugaritzen doazen beste gaitz infkezioso batzuk honako hauek dira: Asiako gripe aviatar, Indiako peste pneumonikoa edota Afrikatik ekarritako sukar infekziosoak. Era berean, areagotu egin dira SESB ohiko herrialdeetatik ekarritako gaitzak ere.

Harreman sexualen bidez kutsatzen diren ohiko gaixotasunei (sifilis, GIB edo gonorea) egun herpes edo kondilomak eta papilomak gehitu zaizkio. Cervix-eko minbizia eragin dezaketen gaitz horien kasuak nabarmen ugartu dira azken urteetan.

Solak garrantzitsutzat jo zuen familiako medikuek denbora eta arreta eskaintzea arazo berri horiei. «Diagnostiko goiztiarra eta ospitalera lehenbailehen joatea ezinbestekoa da gaitz horiei sasoiz heltzeko».

Haragiaren krisia konpontzeko bidean

■ *Erresuma Batuak okelaren etiketatua osatuko duela jakinarazi du, Frantziak hala eskatuta*

Efe/ Brusela

BEHI okelaren etiketatua osatu egingo duela jakinarazi zuen atzo Erresuma Batuak, hala, Frantziarekin duen ikamikak konpondu ahal izateko. Frantziak enbargatu du oraindik Erresuma Batutik heldutako behi okela, nahiz eta Europako Batasunak bahimendua jasoa izan jada.

Ikamikak konpontzeko bildu ziren bi herrialdeak eta EBko ordezkariak iragan ostira-lean. Bahimendua jasotzeko Frantziak egindako eskarietako bat Erresuma Batuak etiketatutako osa ditzan izan zen. EBko Kotsumitsaileen Defendatzaile David Byrnek adierazi zuen espero duela Frantziako gobernuak etzi jakinaraztea bahimendua jasoko duenez.



OSWALDO PAEZ / AP

Hiesaren aurkako kanpaina baterakoKolonbian sortu zuten 1.500 metrotako preserbatiboa.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA
INGURUGIRO SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACION
DEL TERRITORIO, VIVIENDA
Y MEDIO AMBIENTE

AGINDUA, 1999KO URRIAREN 28KOA, LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILBURUARENA, "LA ESTACIÓN IZENEN 3 EGOITZARAKO ALORRA (LOIU)" PROIEKTUA GAUZATZEKO DESJABETU BEHAR DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA JENDAURREAN JARTZEA ETA DESJABETZARAKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA EBAZTEKO

Gaurko egunez, Sail honek ondoan argitaratzen den Agindua eman du:

Bizkaiko Foru Aldundiak, 1999ko otsailaren 11an, "Loiuko Arau Subsidiarioen aldaketa, La Estación izeneko Egoitzarako Alorrea" delako espedientea behin betiko onartu zuen.

Sail honen 1999ko maiatzaren 18ko Aginduz, "Loiuko Arau Subsidiarioen Egoitzarako Alorrea" delako proiektua burutzeko hartu beharreko ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzari eman zitzaion hasiera.

Jendaurrean jarri ondoren, arauzko izapidea baita, Jaurlaritzaren Kontseiluak ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratu zuen 1999ko urriaren 26eko Dekretuaren bidez, Nahitaezko Desjabetzari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. atalean xedatutakoaren arabera.

Ondorio horretarako, honekin batera doan zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularrei dei egiten zaie, aipatutako egun eta orduan, eta Loiuko Udalean bertaratu ondoren, ondasun eta eskubideak hartu aurreko aktak egiteari ekin dakion, eta, hala badagokio, lurrak formalki hartzeari ere bai. Doakienek hala eskatuta, beharrezko bada lurrera bertara ere joan daitezke.

Eraginduen aurak zein bere izenean inardutako behar bezala baimendutako beste ordezkari bana bertaratu beharko dira egintza horretarako. Azken honek bere titulatasuna egiaztatzen duten agiriak (notario-ekriturak, eskritura pribatuak, Jabeago Erregistroaren egiaztagiriak edo informazio-oharrak, etab.) aurkeztu beharko ditu, bai eta bere eskubideak egiaztatzen dituzten beste edozein agiri ere. Bidezko baderitzo eta bere kontura, bere peritoak eta notario bat ere eraman ahal izango ditu berarekin batera.

Halaber, eta Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen Arautegiaren 56.2 atalean xedatutakoaren arabera, doakienek eta aipatutako zerrendan agertu ez diren gauzekiko edo ekonomia eskubideen titularrak diren pertsonak, Aurreko Aktak egiteko adierazitako egunerarte, bidezko deritzen arrazoi bidezkoak aurkeztu ahal izango dituzte, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren bulegoetan (Gran Vía 85), hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda egitean egin ahal izan diren akatsak konpontzekotan soilik.

Gasteiz, 1999ko urriaren 28a